orereta ikastola AURRERA!

DBH3 Komunikazio Tailerra: 1.ebaluazioa
Ezagutzak. "XXI. mendeko hedabideak"

| Helburu didaktikoak | Ebaluazio adierazleak |
|---|---|
| 1. Komunikazioaren garrantziaz jabetzea eta horretan ahalduntzea. | *1.1. Komunikazioa zer den azaltzeko gai da.* |
| | *1.2. Komunikazioan parte hartzen duten osagaiak bereizteko gai da.* |
| | *1.3. Komunikazioa oztopatzen duten elementuak identifikatzeko gai da.* |
| | *1.4. Komunikatzeko modu ezberdinak ezagutzen ditu.* |
| | *1.5. Komunikazio-prozesuaren urratsak zerrendatzen ditu.* |
| 2. Hedabideek gure gizartean eta bizimoduan duten eraginaz jabetzea. | *2.1. Hedabideetan agertu ohi diren gizarte gaiak ezagutu eta aztertzen ditu.* |
| | *2.2. Gazteen bizitzari eragiten dioten gizarte gatazkez hausnartzen du.* |
| | *2.3. Inguruko gatazkei buruzko iritzi pertsonala garatzen eta adierazten du.* |
| 3. Komunikabideen bitartez hedatzen den informazioaren aurrean zentzu kritikoa garatzea. | *3.1. Hedabideetan agertzen den informazioa modu egokian interpretatzen du, zentzu kriktikoarekin.* |
| | *3.2. Kazetaritza-generoetan, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren ezaugarriak identifikatzen ditu.* |
| 4. Hedabide ezberdinak ezagutzea. | *4.1. Hedabide ezberdinak ezagutzen ditu (liburua, antzerkia, musika, komikia, elkarrizketa, zinea, internet)* |
| | *4.2. Hedabide ezberdinen ezaugarriak identifikatzen eta bereizten ditu.* |
| | *4.3. Euskal Herriko hedabide nagusienak ezagutzen ditu.* |
| | *4.4. Euskal Herriko hedabide ezberdinen historia eta gaur egungo egoera ezagutzen du.* |
| 5. Irakurritako liburu baten bideoa sortzea. | *5.1. Bideoa egiteko eman beharreko urratsak ezagutzen ditu: gidoia egin, grabazioa, edizioa.* |
| | *5.2. Booktoberboom lehiaketako bideoa sortzen du emandako jarraibideekin .* |

| | |
|---|---|
| | *5.3. Gaur egungo gizartean ikus-entzunezko baliabideek duten garrantziaz jabetzea.* |
| 6. IKTak erabiltzea informazioa era eraginkorrean bilatzeko eta bideo edizioak egiteko. | *6.1. IKTak erabiltzen ditu sekuentzian eskatutako informazioa bilatzeko.* |
| | *6.2. IKTak erabiltzen ditu bideoak editatzeko.* |